

EUSKARABENTURA 2026

IZEN EMATE OINARRIAK

ZER DA?

EuskarAbentura Espedizioa 2026 (8.edizioa) 127 gaztek osatutako espedizioa izango da, 2026ko uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko duena.

PARTE-HARTZEKO BETEKIZUNAK

- ADINA 2009 edo 2010 urteetan jaioa/sortua izan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako gazteentzako. 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaio/sortua izan Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Zuberoa eta diasporako gazteen kasuan.
- HIZKUNTZA: Euskaraz jakin
- JATORRIA: **Zazpi lurralde euskaldunetatik** zein **diasporatik** datozen gazteak.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO:

FORMULARIOA BETE Hautagaitza aurkezteko, www.euskarabentura.eus webgunean, parte-hartu ataleko "Hautagaitzak 2026" orrialdean aurkituko duzuen izen-emate formularioa bete behar duzue. Bertan hautagaiaren eta tutore/gurasoen datuak bete ondoren jarraian azaltzen diren bi dokumentu hauen **esteka** txertatu beharko da formularioaren barruan:

1. AURKEZPEN BIDEO BAT

Gehienez minutu bateko bideo labur bat. Kontaiguzu nor zaren, EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik espero duzuna, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

Kontuz! Ez dira Drive-eko estekak onartuko, WETRANSFER bidez sortu beharko duzue zuen bideoa bidaltzeko esteka. (Dokumentu honen amaieran WETRANSFER-eko esteka nola sortu azaltzen duen gida aurkituko duzue)

2. PROIEKTU BAT

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Proiektu hori egiteko sei formatu ezberdin dituzu aukeran, horietako batean proposatzen dizkizugun hiru gaietako bat jorratu beharko duzu

Kontuz! Proiektu mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da. Ondo begiratu hurrengo orrietako baldintza taulak.

EUSKARABENTURA 2026

PROIEKTUA EGITEKO GAIAK

1. gaia

Zer da
euskalduntasuna?

Sarritan entzun izan dugu asko garela mundu honetan bizi garen gizabanakoak. Guzti hoiek gainera, espazio eta denbora tarte jakinetan kointziditzen dugu eta beraz elkarbizitza saiestesina da gurean. Elkarbizitza horretatik, halabeharrez, interakzio sozialak lehen planoan kokatzen ditugu, gainontzekorik gabe gizabanakook ezer ez izatera iristen garen arte. Hala, gizabanako bakoitzak zentzu bat ematen dio barne hartzen gaituen gizarte egiturari eta gizabanakoz gizabanako komunitatea sortu izan dugu. Beste hitz batzuetan, norbere izatetik abiatuta identitate kolektiboaren sorreran protagonista papera du norbanako bakoitzak. Prozesu berdina alderantziz, identitate kolektiboak norbanako bakoitzaren izaera egiturtzea eta indartzea ahalbidetzen du.

Identitate kolektiboaz hitz egiten dugunean, nor garen zehazten duen hortaz ari gara, hala nola, "gutasunaz". Identitatea, kasu honetan, talde identitatea, sozialki eraikitzen den zer baita da, lehenago aipatu ditugun interakzio sozial eta baita kulturalen ondorioa. Komunitatearen nortasuna, lehendabizi garatzen, eta ostean, finkatzen laguntzen du hizkuntzak berak, baita sinbolo eta tradizioek ere, oro har, kulturak. Gizakiok komunitatetik kanpo ez genuke izaterik ezta onarpenik ere, hots, ez genuke nor ez zer izaterik. Pertenentzia sentimendu hortaz ari gara, oraingoan, euskal komunitatearen parte izateaz. Euskalduntasunaz. Euskal nortasunaz. Munduikuskera hau partekatzen dugun hoietaz.

Gauzak horrela, nola definituko zenukete euskalduntasuna? Zerk egiten gaitu euskaldun? Bizi zaren tokiak eta inguruko testuinguruak euskal nortasuna izate horretan eragina duela esango zenuke? Zein modutan eragiten du? Euskal Herritar izateak euskaldun egiten gaituela esango zenuke? Ala ez bada, nola irudikatzen duzu euskal sena duen pertsona bat? Euskaldun izatea zoriarekin lotzen duzu? Edo hautu bat al da?

2. gaia

Ametsak egi bihur
daitezke?

Duela denbora gutxi irakurritako artikulu batean zalantzan jartzen zuten egun gizakiok ditugun nahiak eta helburuak mahaigaineratzen ditugunean, ez ote diogun utopia hitzari errazegi heltzen. Badirudi, ezinezkotzat jotzen ditugun gauza hoiekin lotzen ditugula sarritan gure ametsak. Utopian erortzeak edota utopiko izateak aldiz berez existitzen ez den horretan sakontzera bultzatzen gaitu, hau da, geure errealitate ideala sortu edota eraikitze bide bat eskeintzen digu. Beraz, utopiko izate horrek badu ametsen eraikuntzan eragin bat, ustez lagungarria ere izan daitekeena, batez ere, aukeren mundua arakatzera eta esperimentatzera bultzatzen gaituela esan ohi da.

Adituen hitzetan, etorkizun hobe baterako zein ongizate pertsonalerako kontzientzia esnatzea eta aktibatzea helburu izanik irtenbideak bilatzea eta partekatzen jakitea da amestea. Ezin uka daiteke, ametsen eraikuntza hortan dihardugunean amets-lapur gisa ezagutzen ditugun hoiek agertzen direla ; beldurak, ziurgabetasunak, intsegritateak edota bestelako mamuak.

Bizitzak iraun duen bitartean, ametsak errealitatearen parte izatera hel daitezkeela esango zenuke? Zergaitik ? Jakin badakigu, gizakiok zorientasunaren bila gabiltzala uneoro, ondorioz, ez al duzu uste amets hoiek egia bihurtzea gure ardura nagusienetako bat izan beharko litzatekeela? Ze jokabide hartuko zenuke amets hoiek egikaritzeko ? Ametsak errealitate bihurtzera heltzeko prozesuan zer esango zenuke eragin dezakeela? Zerekin amesten duzu zuk zeuk? Zein da hoiek egikaritzeko irudikatzen duzun plana?

**Zein gerai historikora
joan nahiko zenuke?**

3. gaia

Gizakiak milioika urte daramatza munduan bere arrastoa uzten eta horri esker denboran zehar asko ikasi dugu. Besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintza, artea eta teknologia, filosofia eta zientzia, zibilizazioa eta kultura garatu ditugu urteen joanaz. Hainbat herri, zibilizazio, inperio eta sistema sortu dira eta baita desagertu ere urte guzti hauetan, baina, beste asko, berriz, eboluzionatuz joan dira, gaur egun diren bezalakoak izatera iritsi arte. Denboran zeharreko gertakari guzti hauek egituratzen dute gure historia.

Bada, historia bera ez da zerbait uniforme eta denbora-tarte jakin batzuk bereiz ditzakegu, zeinetan aurrerapen edo aldaketa izugarriak eman diren. Garai historikoez ari gara; Historiaurreaz, Antzinaroaz, Erdi Aroaz, Aro Modernoaz eta Aro Garaikideaz.

Gizakia sortu zenetik eta lehen dokumentu idatziak azaldu bitarteko garaia Historiaurre gisa ezagutu dugu, garai hartan sua aurkitu zen, lehenengo esku-tresnak sortzen hasi ziren eta nekazaritza zein abeltzaintza eremuak sortu ziren, nomadak ziren. Euskal Herri mailan Izturitzeko leizean hegazti hezurrez eginiko hiru zuloko txirula bat aurkitu zuten.

Antzinaroa idazmenaren asmakuntzarekin hasi zen eta Erromatar Inperioaren gainbeherarekin eman zitzaion amaiera. Garai honetan nomada izateari utzi eta modu sedentarioan bizitzera pasatu zen gizakia, era horretan, lehen zibilizazioak sortu ziren lehenengo hirigintza proiektu eta politikak ere abiaraziz.

Erromatar Inperioaren amaierak eman zion hasiera Erdi Aroari. Aro honetan, Feudalismoa gailendu zen sistema politiko gisa, hierarkikoki antolatuta zeuden eta gorengo postuan zegoenak agintea zuen. Lurren jabetzan oinarritzen zen sistema zen eta esklabutza nagusitzen zen beheren edo aginterik ez zutenekiko, non babes truke goikoen lurra landu behar izaten zituzten. Erdi Aroan, X. mendean euskarazko lehen esaldi idatziaren testimonioa "Jzioqui dugu" eta "Guec ajutu ez dugu" glosak aurkitu ziren egun Donemiliaga Kukulan, Errioxan, gordeta daudenak.

Aro Modernoak Frantziako Iraultza hasi arte iraun zuen eta garai honetan absolutismoak hartu zuen indarra, non erregeak baino ezin zitekeen agindu. Baina gutxinaka esklabutza indargabetuz joan zen eta aurrerapen zientifiko eta sozial asko eman ziren garai honetan, gaur egungo gizarte balio askori bide emanik. Euskalgintzan, eta beraz, euskararen historian lehenbizi inprimatutako liburua argitaratu zen Bordelen Bernat Etxepare idazle Baxe-Nafartarraren eskutik "Linguae Vasconum Primitiae".

Azkenik Frantziako Iraultzarekin batera hasi eta gaur egunera arte mantendu den garaia, Aro Garaikidea litzateke. Aro honetan, eskubide, betebeharrak eta herritarren askatasun eta berdintasunaren bidean aurrera pausuak ematen dira, baita, teknologian ere. Medikuntzak asko eboluzionatzen du, gaixotasun larriak kontrolatzera iristen diren arte. Euskal Herri mailan, Frantziako Iraultzaren osteko urteetan, frantsesa ez ezik, beste hizkuntza gutxituen aurka errepresioa nabaria zen, tartean, euskara. Urteak pasa ahala, eta autoritarismoaren amaierarekin euskaltzaletasunaren ohiartzuna indarra hartuz joan euskal hedabideen sorrerarekin, literatura aipamenekin, euskal kirolarien lorpenekin eta euskal filmak kaleratzearekin, batik bat.

Eboluzioa nabaria da, eta aurrera pausuak onerako diren arren, badabil hor nonbait jendearen ahotan lehenago bizitza sinpleagoa eta errazagoa zenaren sinesmena, ados al zaude? Garai historiko bakoitzak alde on eta txarrak dituela esango zenuke? Zeintzuk? Egund, teknologia berrien garapenak eta intelijentzia artifizialaren sortzea bolo bolo dabil, ildo honetatik, hobeto edo okerrago bizi garela esango zenuke Aro Garaikidean? Arrazoitu zergaitik. Garai historiko bat aukeratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke? Azaldu zer den aro horretatik erakartzen zaituena.

Zer da euskalduntasuna?

- <https://zuzeu.eus/euskal-herria/nortasunaz-euskalduntasunaz/>
- https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=sarreralkusi&Itemid=413&id=150464
- <https://euskalsena.eus/gakoak/aurrera-egurra/nor-da-euskalsenduna/>
- <https://alea.eus/araba/1759312080018-b-alea-edurne-azkarate-eta-euskalduntasuna>

Ametsak egi bihur daitezke?

- https://www.berria.eus/iritzia/artikuluak/ametsak-eraikitzen_1312655_102.html
- <https://goiberri.eus/2015/10/12/ametsak-edo-ametsak/>

Zein garai historikora joan nahiko zenuke?

- <https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/bernart-etxepare-euskarazko-lehen-liburu-inprimatuaren-idazlea>
- <https://info.ikasgune.com/eu/historiaren-aroak/>
- <https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/adimen-artifiziala-ikuspuntu-bat-da>

ADI! KASU!

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- EuskarAbentura Elkartek izen-ematean proiektu guztiak jasotzen ditu, baina elkarteak ez da balorazioaz arduratzen.
- Proiektu guztiak Eusko Ikaskuntzako kideek baloratzen dituzte elkarteak emandako irizpideen arabera.
- Proiektuak baloratzaileei bidaltzerakoan anonimotasuna bermatzeko ziurtatu ezazue proiektuen barruan EZ dadila zuen izen-abizenik agertu.
- Elkarteak baloratzaileei bidalketa egiterakoan proiektuetako artxibo guztien izenak kodifikatu egiten ditu.
- Proiektuak bidali aurretik ondo irakurri hurrengo taulan ageri den informazioa eta egin beharrekoak.

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK



Historikoa

TESTUA

- Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte)
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroarte: 1,5
- Eranskinik ez

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur

TESTUA

- Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte)
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroarte: 1,5
- Eranskinik ez

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur



Literarioa

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK



Ikus-
entzunezkoa

BIDEOA

- Iraupena: 2-5 minutu
- Generoa: dokumentala/fikzioa
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: MP4 edo AVI eta WETRANSFER esteka batean bidali (**ADI!** EZ dira Drive-eko estekak onartuko)

EZ DADILA EGILEAREN **IZENA** AGERTU BIDEOAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_bideoa

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_bideoa

AZALPEN TESTUA

- Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte)
- Edukia: ekoizpen prozesuaren azalpena. Erabilitako baliabideak, gaiaren hautaketaren zergatia, izandako zailtasunak...
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera: Times New Roman 12
- Lerroarte: 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK

AUDIOA

- Iraupena: 2-8 min
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: MP3 edo AVI eta WETRANSFER esteka batean bidali. (**ADI!** EZ dira Drive-eko estekak onartuko)

** Abesti ezagunen bertsioak onartuko dira BAINA konposizio musikal originalak hobeto baloratuko dira.*

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_audioa

Adibidea: **MartínezLópez_Amaiur_audioa**

AZALPEN TESTUA

- Luzeera: 2-3 orrialde
- Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroarte : 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena

Adibidea: **MartínezLópez_Amaiur_azalpena**



Musikala



Plastikoa

ARTELANA

- Gehieneko tamaina: 50x70x20. Neurri horietara egokitzen ez diren proiektuak ez dira onartuko.
- Materiala/teknika: Askea (beira eta manipulatzeko arriskutsuak izan daitezkeen materialak ez erabili)

EGILEAREN **IZENA EZ** DADILA AGERTU **ARTELANEAN** BERTAN!

GOGORATU! Beranduenez **martxoaren 2rako** artelan originala hurrengo helbidera iritsi behar da eta postaz bidaliz gero beranduenez martxoaren 6rako.

Helbidea: EuskarAbentura Elkartea Errotatxu Industrialdea (GetxoGasol) Z.G. 48993 – Getxo Gasolindegiko dendan utzi

*Aurkeztutako proiektuak ezingo dira berreskuratu.

AZALPEN TESTUA

- Luzeera: 2-3 orrialde
- Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroartea : 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

ARTELANAREN ARGAZKIA

- Formatua: PDF

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA ARGAZKIAN**

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_argazkia

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_argazkia

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK

GARATUTAKO PROIEKTUA

- Proiektua ikusteko edota deskargatzeko esteka azalpen testuaren baitan bidali.

ADI! EZ dira Drive-eko estekak onartuko

Power Point-ak **ez** dira onartzen!

AZALPEN TESTUA

- Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte)
- Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena.
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroarte : 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN.

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:

Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena

Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

KASU! ADI! Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluaziora bidaliko eta ez dira parte hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.



Sormen
digitala

EGUTEGIA 2026

Martxoaren 2ra arte (barne)	Izen-emate epea: Proiektua eta aurkezpen bideoa bidali
Apirilak 22	Behin-behineko hautatuen zerrenda argitaratuko da webgunean. Hautatuei jakinarazpena bidaliko zaie posta elektroniko bidez.
Apirilak 22 - Apirilak 30	Epe honen barruan plaza BAIEZTATU (bermearen ordainketa eginez) edo plazari UKO egiten diozun adierazi beharko duzu. Horretarako: - Plaza BAIEZTATZEKO Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien BERMEAREN ORDAINKETA (230 eurokoa, apirilaren 30ean beranduenez) egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute izenematea@euskarabentura.eus helbidera. Ordainketaren KONTZEPTUAN: Abizena+Izena+2026 (Partehartzailearena) Adib: MartínezAmaiur_2026 - Plaza UKATZEKO izenematea@euskarabentura.eus helbidera idatzi plazari uko egiten diozula adieraziz. Mezuaren kontzeptuan "Plazari UKO" jarriz. Ondoren eman beharreko pausuak mezu baten bidez jakinaraziko dizkizuegu. (Dokumentazio bidalketa)

KONTUAN EDUKI Espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plazari uko egingo balio edota plaza gordetzeko derrigorrezkoa den bermea ordainduko ez balu bere plaza itxaron zerrendan geratu diren gazteei eskainiko zaiela. Kasu horietan:


Apirilak 30 - Maiatzak 8	Itxaron zerrendatik sartu diren hautatuentzako: • Plaza BAIEZTATZEKO Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien BERMEAREN ORDAINKETA (230eurokoa) egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute izenematea@euskarabentura.eus helbidera. Ordainketaren KONTZEPTUAN: Abizena+Izena+2026 <i>Adib: MartínezAmaur_2026</i>
Maiatzak 15	Hautatuak izan diren eta bermea ordaindu duten gazte guztiek, eskatuko zaien DOKUMENTAZIOA bidaltzeko AZKEN EGUNA izenematea@euskarabentura.eus helbidera.

BIDEO ETA FITXATEGI ASTUNAK NOLA BIDALI

1.urratsa: Sartu “www.WeTransfer.com” webgunera zure nabigatzailean.

Horretarako, klikatu hemen: <https://wetransfer.com>

2. urratsa: “Add files” ataleko borobil urdinari sakatu eta zure ordenagailuko artxiboetara bideratuko zaitu. Jarraian artxiboa aukeratu eta egin klik “Get a link” atalean. Horrela zuk behar duzun **ESTEKA/LOTURA eskuratuko duzu!**



1.go bertsioa: 2025/12/02
2.bertsioa: 2026/02/02 bermearen kopuruaren aldaketagatik.